

FRUIZBARRI

Fruizko barriak
Euskara Zerbitzua
Fruizko Udala
2011ko apirila
39.zk.

FRUIZBARRI

Urten da neguko lozorrotik gure "Fruizbarri"txoa, uxatu dauz nagikeriak eta hemen jatorku udabarriaren koloreakaz jantzita, zolirik, herriko barriak zuei danori hainbat arinen ekarri gurean.

Dakarguzan barriok baliokoak izango dozuezala eta gogotsu hartuko dozuezalako esperantzeagaz ondo-ondo izan eta udako zenbakirarte.

Ordukoan kontu gehiago!!



Fruizko Udalak KORRIKAREN edizino honetan be kilometro bat erosi dau, eta dei egiten deusie fruiztar guztiei AEK-k antolatzen dauan KORRIKAN parte hartu daien.

Hona hemen Fruizko Udalari egokitutako kilometroaren gaineko informazioa txandala eta zapatilak jantzita herriko ume, gazte eta heldu guztiok bertaratu gaitazan.

Eguna: APIRILAREN 16a (zapatua)

Kilometro zenbakia: 2252

Lekua: LARRAURIko “rekta” amaieran.

Aurreikusitako ordua: 15:45



Ez dago aitxakiarik, eta aurtengoan inoiz baino gitxiago,

euskerearen alde Euskal Herria zeharkatzen dauan lasterketan parterik ez hartzeko:

zapatua da, arratsaldea eta ...

eta **euskerea maitatu, ikasi eta erabiltzen dauan euskalakaririk inon bada, hori gurean da, ez ala?**



Fruiztarrak Korrika 16an

- **UMEENTZAKO UDAKO JOKOAK** prestatzeko lanei ekingo deusiegu laster. Aurreko urteetan bezala, bi tailer egingo dira: bata, 3-5 urtekoei zuzendutakoa eta bestea, 6-12 urte bitartekoei.

Adi ibili, baina izena emoteko epeak aurreko urteetakoak bezalakoak izango dira:

► 3-5 urtekoentzako jokoen gaineko informazioa, orain arte bezala, etxeetara bialduko jatzue **POSTAZ maitzean**.

► 6-12 urtekoentzako jokoetarako izen ematea **bagilean** (ekainean) zabalduko da. Horren barri emoteko kartelak jarriko dira, informazio-panela eta Fruizko web orria (www.fruiz.net) erabiliko dira.

- **EUSKALDUNEN LAN POLTSA**

Fruizko Udalak, Arrieta eta Gamiz-Fikako Udalekin batera, aurten be euskaldunen lan poltsa osatzeko kanpaina zabalduko dau maitzean.

Holan ba, umeak jagoteko, nagusiak jagoteko, eskola partikularrak emoteko zein aisialdiko begirale izateko prest dagozanakaz zerrendak osatuko dauz udalak eta zerrendok zerbitzu horreen premia dabenen eskura jarriko dauz.



Izena emoteko epea maitzean zabalduko da.

EUSKALDUNEN LAN-POLTSA

KONTUTAN HARTU BEHARREKOAK:

- 1.- Ezinbestekoa da euskeraz berba egiten jakitea.
- 2.- Zerrenda bakar batean zein gehiagotan emon leiteke izena.
- 3.- Izena emoteko:
 - a.- Inskripzio-orria bete behar da.
 - b.- Datuak erabiltzeko baimena sinatu behar da.
 - c.- *Curriculum vitae* aurkeztu beharko da. Argi adierazo gaiagaz lotuta dagoan titulazioa eta esperientzia.
- 4.- Ez da azterketarik edota probarik egingo.
- 5.- Udalak, bitartekari lana baino ez dau egingo.

Lan poltsan izena emon gura dabenek inskripzio-orria bete beharko dabe. Udalak ez dau azterketarik edo probarik egingo. Hori bai, euskaldunen lan poltsan izena emoteko, **DERRIGORRA, EZINBESTEKOA** izango da euskeraz berba egiten ondo jakitea.



- Garrantzia emoten deusie gure herritarrek euskal ohitura eta tradizinoak gorde eta transmititzeari eta zezeilean tokatzen dan lez, **SANTA AGEDA** abesten ibili ziran auzorik auzo hasi arratsaldeko


16:00retan eta 19:30ak ingururarte. Egunari amaiera emoteko herriko mendi taldekoek indar barritzeko prestaturiko merienda gozoa euki eben parte hartu eben guztiek.

Batutako dirua urte bakoitzean herriko alkarte batentzat izaten da, aurtengo dirua Kirikiñitu Mendizale Taldearentzat izan da. **ESKERRIK ASKO herritar guztioi !!!**

-Zezeilaren 15ean **INAUTERI-JAIA** egin zan herrian eta girotxo polita sortu zan eskola zaharren inguruan. Holangoetan gertatzen dan moduan, umeak izan ziran bertaratu ziranak (gurasokaz, jakina) eta ondoen pasatu ebenak. Izan be, tailerrak euki ebezan, jolasak, merienda...




ZINEMA EUSKERAZ GAZTE eta HELDUENTZAT



APIRILaren 30ean (zapatua)

Arratsaldeko 18:00retan

Fruizko **eskoletan**



MAIATZaren 28an (zapatua)

Arratsaldeko 18:00retan

Fruizko **eskoletan**